bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko abendua | 015. zenbakia | 1,50€

00015
9 771888 505000

TARAHUMARAK

Sierra Madreko lehen biztanleak

PEARL HARBOR | KRAKOVIA NEGUAN | BARBAGIA | CASTRO VALNERA | BERTIZ | LAS TERRAZAS

Badago ezagutzeko mundu bat

bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ ·Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:
Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena
Abizenak
Helbidea
Herria | Posta Kodea | Herrialdea
NAN | E-Posta | Telefonoa
Kontu korronte zenbakia
Kontuaren Jabea

Nahiago izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoian azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruña distribution & services, S.L.ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruña distribution & services SLren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 015
2022ko abendua

Zazpi Haizetara aldizkariaren 164. zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:
Núria López Torres

ARGITARATZAILEA:
Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara aldizkariaren lan taldeak ekoiztua.

EDITOREA:
Eguzki Agirrezabalaga eta Ibai Azparren

JATORRIZKO DISEINUA:
Grafik Sarea + Artefakto

MAKETAZIOA:
Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:
Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:
bidaiari@naiz.eus

TELEFONOA:
943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:
01361-2021

INPRIMATZEN DU:
Printek Inprimategia.
Zamudio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Gipuzkoako Foru Aldundia

bidaiari 015

AURKIBIDEA

06 **TARAHUMARAK** Bidaia zirraragarria Mexikoko mendebaldeko Sierra Madre mendikatean barna. Herrialdeko etnia indigena ugarienetako bat bizi da han: tarahumarak. Chihuahua eta ozeano Barea lotzen dituen trenbideak lurraldea igarotzen du, eta zuzen-zuzen murgiltzen gaitu milaka urteko kultura honen bihotzean.

14 **PEARL HARBOR** Japoniak itsasontzi-base estatubatuarra bonbardatu zuen 1941ean. Natura aspaldi birrindu zen, eta historia eta memoria dira nagusi hemen.

22 **WANLI** 60ko hamarkadako diseinuak jarraituz, Taiwaneko Wanli barrutian «estralurtarren» etxeak eraiki zituzten duela 40 urte. Gaur zutik diraute.

26 **NEGUAN KRAKOVIAN** Distira berezia du Krakoviak, baita neguan ere. Hilabeterik hotzenetan, Poloniako hiria helmuga paregabea da.



36 **BARBAGIA** Sardiniako txokorik sardiniarrena da. Olibondo, harrizko kalexka eta Mediterraneoko pinudien artean dagoen eskualde berezia.

44 **CASTRO VALNERA-K** Pirinioak urruti geratzen zaizkionari aukera onak eskaintzen dizkio. Mendizale askoren bisita jasotzen du.

52 **BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK!** Bertizko jaurerria, naturaren arnasgunea, Hatorxu Rock jaialdia, Mendi Film, "Indésirables" San Telmo Museoan... 56 **HIRIAK MOTZEAN** Las Terrazas, Kubako nekazaritza eta eko-turismoaren aitzindariak 60 **MUNDUAN PASIERAN** Comuna 13 eta Medellingo metamorfosia, Armenia zerutik, duela 3.500 urteko opioa, AEB eta Mexiko arteko muga...

LOMBARD STREET

100 urte bete ditu zortzi bihurguneko San Frantziskoko kaleak

San Frantzisko hiriko Russian Hill muinoan dagoen Lombard Street ezagun bihurtu dute zinemak eta telebistak, baita bere ezaugarriak puztu ere: ez da, toki hagitzetan irakurtzen ahal den moduan, munduko bihurgune gehien duen kalea; espazio txiki honetan sigi-saga egiten duten bere zortzi kurbek AEBetako marka hausten duten arren. Bada, 2022an 100 urte bete ditu Carl Henry arkitektoak diseinaturiko kale sonatu eta bitxi honek. 400 metrotan %27ko desnibela gainditzeko sortu zen galtzada gorriko "suge" hau eta, autoentzat, bihurgune eta estutasunarengatik norabide batekoa, beheranzkoa, bakarrik da. Gainera, gehienez 8 kilometro orduko abiaduraz gidatu behar da han eta, 2020tik aurrera, gehiegizko trafikoa ekiditeko, bidesaria ere ordaindu behar da autoz sartzeko. Oinezkoek, halaber, alboetan eskailerak dituzte gorabehera nahi beste ibiltzeko.

Bihurguneen edo loreen kalea deituraz ezaguna den hau askotan izan da Hollywoodeko filmen eszenatokia. Horien artean famatuena Hitchcock-en ˝Vertigo˝ da, James Stewart eta Kim Novak protagonista dituena. Argazkirik ikusgarrienak Hydeko bidegurutzetik lortzen ahal dira. Gomendagarria da udaberri eta uda partean, kolore biziak eta distira berezia hartzen baitituzte aldamenetan diren lore sortek. Autobusez edo *cable car* tranbiaz hara hurbiltzea erraza da oso, San Frantziskoko erdigunean baitago, Columbus Avenuetik hurbil. San Frantziskoko Alcatraz Presondegi zinematografikoa, Coit Tower, zeinetatik badiaren eta zubiaren sekulako ikuspegiak lortzen ahal diren, North Beach eta Emabarcadero auzo ezagunak lotzen ditu gainera. Halako ezaugarriekin, ez da harritzekoa, hortaz, Lombard Street-en parte ikusgarri honek urtean bi miloi bisitari jasotzea. GERSH DANIEL GERSTENHABER

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 6

TARAHUMARA

Herriaren bihotzera bidaia

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 7

Mexikoko etnia indigena jendetsuenetako bat izateaz gain (120.000 kide inguru), tarahumarak mendebaldeko Sierra Madreko lehen biztanleak dira. Raramurien –hala esaten diote tarahumarek beren buruari– bizitoki eta bizimoduaren bihotzera abiatuko gara.

Testua eta argazkiak: **Núria LÓPEZ TORRES**

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 8

Metalezko suge luze baten moduan, Tarahumara mendilerroaren geografia malkartsuaren baitan irristatzen da “El Chepe”. Mexikoko mendikate luzeena eta Ipar Amerikan biodibertsitate handiena duen eremuetako bat da hauxe. 86 tunel zeharkatzen ditu eta ibai emariak saihesten dituzten 37 zubi ikusgarrien gaineran oreka eginez ibiltzen ohi da. AEBetako Coloradoko Arroila Handia baino lau aldiz handiagoak eta ia bi aldiz sakonagoak diren Cobreko Sakanak zeharkatzen ditu. Bederatzi ordu ematen ditu “El Chepe”-k Los Mochis-en (Sinaloako estatua) hasi eta Creel-en (Chihuahuako estatua) amaitzen den 350 kilometroko ibilbidea egiteko. Chihuahua eta ozeano Barea lotzen dituen trenbideak raramuri edo tarahumaren lurraldearen parte handi bat igarotzen du, zuzen-zuzen abiarazten gaituelarik milaka urteko kultura honen bihotzera.

Bere erara moldatu dituen ingurune batean bizitzera egokiturik, gogorrak eta isilak dira tarahumarak. Aldapaz josia da mendilerroa, eta desnibel bortitzengatik bereiziak dira mendi garaiak eta sakan sakonak, bi eremu ekologiko zeharo ezberdin sortuz. Mendilerroaren goiko aldeetan zoruak oso finak izaten dira eta koniferoen basoez estalita egoten dira. Lur horiek la-

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 9



borantzarako ireki eta prestatzen direnean, denbora gutxian galtzen dute materia organikoa, lurzorua guziz antzu bihurtuz. Laboratu daitezkeen lurrak hegal eta goi-lautada txikietan paratzen ohi dira. Artoa da bertan ereiten dena batik bat, "frijol" edo babarrunak tartekatzen direlarik zenbaitsuetan. Zereal horixkaren inguruan antolatzen dira herri honen eguneroko bizitza eta errito gehienak. Izan ere, lurrarekiko harremana biziraupen hutsetik haratago baitoa; kultura tarahumaroaren bizkarrezurra da.

63.000 kilometro karratu inguru hartzen ditu tarahumarak bizi diren lurraldea. Haietako asko Triangulo Dorado (Urrezko Triangelua) deritzon eremuan daude, Durango eta Sonorako estatuen mugakide den Chihuahuako estatuaren zatian. Chihuahua hirian bertan bizi dira ere tarahumara aunitz. Halaz ere, Creel hirian biltzen dira raramuri gehienak.

ERRITU SINKRETIKOAK "Matatxin" (dantzari tradizionalak) deiturikoen motots koloretsuak lehia bizian dira ekaitzarekin mehatxatu egiten gaituen abenduko zeru larderiatsu eta hotzaren berunezko urdin eta kobalto kolore zurrunekin. Tenperaturak behera egiten du orduan eta haizeak gogor jotzen hasi. Baina, hala ere, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko ospakizunek ez dute etenik San Ignazio Arareko herrixkan. Uzta

Ezkerrean, Divisadero tren geltokia eta Pazifikorako Chihuahua Burdinbidea edo Chepeko Trena. Ondoan, gazte batzuk arto salda prestatzen ari diren emakumeengana hurbiltzen. Eskuinean, jendea Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko ospakizunetan parte hartzen, Ignacio Arareko herrian.

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 10

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 11



garaia amaitzean, tarahumarak beren komunitateetako hiri eta herri nagusietan biltzen dira festa eta erritu kolektiboak egiteko, zeintzuetan lurreko fruituak lortzeak suposatzen duen ongizate ekonomikoa ospatzen baituten. Udazken amaieratik otsailaren bukaerara edo martxoaren hasierara arte doan jai-zikloari hasiera ematen diote horrela.

Jairik esanguratsuenak zaindari edo patroi santuei eskaintzen zaizkie batez ere, ospakizun sinkretikoen iturburu direlarik, non sineste prehispanikoak eta erritu katolikoak uztartzen diren. San Ignacio Ararekon, XVIII. mendeko jesuiten misio txikia ospakizun hauen eszenatoki nagusietako bat da. Han, bi egunez biltzen dira eskualdeko hainbat eremutako tarahumarak.

Raramuriak isolatutako arrantxo xumeetan bizi dira, edo etxebizitza gisa egokitu diren harrizko kobazuloetan, eta, beraz, ospakizun horiek elkartzeko eta elkartrukerako unea dira. Aisia eta gozamenaz haraindiko funtzio soziala dute jaiek, talde bezala bateratzen dituen egiturak izanik. Horietan konpontzen dira talde-arazoak, etorkizuneko laguntza-ekintzak; bertan osatzen dira ere bikoteak eta bertan ezkontzen dira. Jai garrantzitsuenek kristau egutegiarekin bat egiten dute: Aste Santua, Kandelaria, Sortzez Garbia, Guadalupeko Ama Birjina, urte bukaera eta Epifania. Beste jai batzuk Awilatxiak dira, pertsonak sendatzeko egiten diren zeremoniak, la-

Tarahumaretako soineko tipikoa daraman emakumea, Chihuahua hirian. Behean, «Barrancas del Cobre» baten bistak. Barranco jatetxetik beste aldera zubi eseki batetik igaro behar da. Eskuinean, emakume bat senarraren zain, Ignacio Arareko elizaren atzean.

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 12

Oso distantzia luzeak egin ditzakete tarahumarek korrika; 100 eta 200 kilometro artean, gelditu gabe. Batzuek diote 270 kilometroraino irits daitezkeela. Komunikazioaz haraindi, aisialdi eta dibertimentu jarduera ere da korrika.

pb06_bid_8_221202_Bidaiari_00015_Maquetación 1 23/11/22 9:47 Página 13

borantza hasi aurretik edo euri eske egiten direnak. Hildakoak agurtzeko Napawi Nochama ospatzen dute, non bidaia luzerako janaria eskaintzen zaion hilotzari.

Bidoi handi batzuetatik ateratzen da parra-parra elikagaiez betetako kea, eta bertan arto-gisatu sendo bat prestatzen dute. Gorputz dardartiak berotu nahian biltzen dira talde txikietan sutzarren inguruan. Inguru guzia festa-giroz blaitzen duten kantu batzuen oihartzuna iristen da elizatik. Erritu erlijiosoak eta Guadalupe gurtuari eskainitako dantzak egiten dira 24 orduz, atsedenaldiak tartekatuz.

KORRIKA EGITEKO JAIOAK Oso distantzia luzeak egin ditzakete tarahumarek korrika; 100 eta 200 kilometro artean, gelditu gabe. Batzuek diote 270 kilometroraino irits daitezkeela. Zentzu osoz, beraz, "raramuri" izena hartu dute bertakoek, "oin arinak dituena" esan nahi duena. Beren arropa eta oinetako tradizionalekin korritzen dute. Pneumatiko-gomekin egiten dituzten eta "huarache" deritzen sandaliak dira azken hauek. Ez dute puntako teknologiaz sorturiko zapatilarik behar, ezta janzkera berezirik ere. Beraientzat korrika egitea eguneroko bizitzaren eta haien kulturaren parte da, haien DNAn dago, eta horregatik berdin-berdin egiten dute gizonek, emakumeek edo haurrek.

Ia giza gaindikoa den gaitasun honen jatorria aztertu dute zenbait ikertzailek dagoeneko. Talde indigena hau mendeetan zehar bizi izan da muturreko orografia batean, Tarahumara mendilerroan, komunitateak elkarrengandik oso urrun finkatu zirelarik. Beraz, harremana izateko modu bakarra distantzia luze horiek oinez egitea zen, lur malkartsu honek ez baitzien beste garraiobiderik ahalbidetzen.

Baina, komunikazioaz haraindi, aisialdi eta dibertimentu jarduera ere bada korrika. Haien entretenimendurik handiena "Juego de Bola" (Pilota Jokoa) da, arteen sustrai-zurez egindako eta tenisekoa baino handixeagoa den pilota bati ostikoka distantzia luzeak egitean datzana. Bi talde sortzen dituzte horretarako eta apustuak egiten dira aurrez finkatutako ibilbidea nork azkarrago bete. Gizonek dirua, animaliak edota janaria jokatzen dituzte; emakumeek, berriz, beren gona ikusgarriak edo beste jantzi batzuk. Lasterketa luze hauetan "pinole" formako artoaz (irin moduko bat) eta "tesgüino" motatako artoz egindako edariaz elikatzen dira.

Christopher McDouga kazetariak aste batzuk eman zituen raramuri artean mendizerran eta zeharo harriturik geratu zen haien gaitasun eta erresistentziarekin. Esperientzia horretatik sortu zen 'Nacidos para correr' (Korrika egiteko jaioak) liburua, nazioarte mailan ikusgarritasuna eman ziena. Eta laster iritsi ziren talentu-bilatzaileak Barrancas del Cobre-ra (Kobre Sakanak) tarahumara bila, AEBetako eta Europako ultramaratoietan lehiatzeko.

Mendeetan zehar, ingurunearekin bat egin dute tarahumarek. Mendiek eta sakanek gogortu egin dituzte, eta "txabotxien" (gizon zuriak) erasoetatik babesteko aukera eman diete. Oraindik orain, haien arbasoen izpirituek babesten dituzte, baita lurralde magiko honetan zehar aske korrika egiten jarraitzera bultzatu ere.

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ JOAN

Bidaia Aste Santua edo Guadalupeko Ama Birjina bezalako kristau egutegiko jairen batekin batera egitea komeni da.

NOLA IRITSI

Mexikora egunero hegan egiten duten konpainia anitz dago (Iberia, Aeromexico, KLM, Airfrance, American Airlines). Horietako batzuek hegaldi zuzenak dituzte Chihuahua hirira; bi geldialdi dituzte, hala nola Air France, Atlanta eta Mexiko Hirian; edo American Airlines, Londres eta Dallasen. Mexiko Hiritik barne hegaldi bat har daiteke Chihuahuaraino (Viva Aerobus, Volaris, Aeroméxico).

OSTATUA

Ostatua hartzeko tokirik onena Creel herrian aurkitzen ahal da, Chihuahatik ia lau ordura autoz, Sierra Madreko mendietan. Creelen tarahumarak bizi dira, eta handik mendilerroko gune interesgarrienetara irits daiteke, bertan biltzen baitira ospakizunak egiteko.

PEARL HARBOR

Bigarren Mundu Gerraren oroimena

Hegazkin japoniarrek itsasontzi-base estatubatuarra bonbardatu zutelako gogoratuko du historiak Pearl Harbor. Bonbardaketa horrek gizateriaren historian izan den gerrarik gogorrenean sartu zituen Ameriketako Estatu Batuak. Gaur egun, turistak saldoka bertaratzen dira bonbak erori ziren tokiak ikustera, baina beren hildakoak ohoratzera datozenentzat erromeslekua ere bada.

NATIONAL MEMORIES
U.S.-China Collaboration
During WWII
國家記憶
U.S. AIR FORCE
Traveler



Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**

Punchbowl kraterra Honolulu erdialdean dago. Duela 70.000 urte baino gehiago sortu zen toba bolkanikoko konoa da, eta, gizakia Oahu uhartera iritsi zenean, Puowaina bihurtu zen, Sakrifizioen Muinoa. Urkamendi natural horretan, bizitzarekin ordaintzen zuten kapua, polinesiar herriaren tabuei buruzko arau-multzoa, urratzera ausartzen zirenek. Heriotzarekin zuen harreman hori ez zen amaitu Amerikako Estatu Batuek artxipelagoa anexionatu ondoren; orain, ordea, hilerri itxura du: National Memorial Cemetery of the Pacific. 1948an sortu zen, eta Bigarren Mundu Gerran, Pazifikoko Gerran eta potentzia iparramerikarrak Asia ekialdean parte hartutako gainerako borroketan hildako soldaduen gorpuzkiak biltzen ditu.

1939 eta 1945 artean planeta odolustu zuen gatazka belikoaren eszenatokiak ezagutu nahi dituztenen lehen etapa da Punchbowl. Hango begiratokitik ikusiko dugu ekialdean Diamon Head, uharteko sumendi ikonikoa; eta mendebaldean, Hawaiiko hiriburuko etxe orratzak gaindituz, Pearl Harbor-eko urak sumatzen dira. Izen horrek Bigarren Mundu Gerra dakarkigu burura. Hemen ez dugu Hawaiiren edertasunik topatuko; natura aspaldi birrindu zen eta ez dago hondartzarik. Historia da nagusi hemen eta, batez ere, memoria.

BADIAREN EKIALDETIK Badia baino kostaldeko urmaela da Pearl Harbor, edo Pi'uloa, barnealdera sartzen den kanal estua, ondoren adar eta penintsuletan irekitzen dena. Babesleku natural zabal eta segurua da, portu bat ezartzeko aproposa eta estrategikoki ezin hobea Amerikaren eta Asiaren artean dagoelako. Gerra martxan zenez eta AEBek parte hartuko zutela aurreikusten zutenez, 1941ean Gobernu estatubatuarrak San Diegotik hona aldatu zuen Pazifikoko Flotari aterpea emango zion itsasontzi-basea.

Japoniak Asia osoa mendean hartzeko helburua zuen eskuartean, baita ozeano handia ere, eta asmo horren aurkako mehatxu nagusia AEBak ziren. Hala, aurretik gerra deklaraziorik egin gabe, Pearl Harborri eraso egin zion Armada estatubatuarraren baliabide nagusiak deuseztatzeko.

1941eko abenduaren 7an, 353 ehiza-hegazkin, hegazkin bonbaketari eta torpedo-ontzi japoniarrek basea birrindu zuten; 2.403 estatubatuar hil eta 1.178 zauritu zituzten. Lau korazatu hondoratu zituzten eta beste hainbeste kaltetu, eta hiru gurutzaontzi, hiru destruktore, eskola-ontzi bat eta minadore bat matxuratuak edo hondoratuak izan ziren. Horrez gain, 188 hegazkin suntsitu zituzten. Japoniarrek ia ez zuten galerarik izan.

Zortzi hamarkada igaro direnean, mundu osoko milaka turista iristen dira bertara. Baina, batik bat, estatubatuarrak eta japoniarrak. Biek bat egiten



dute oroimen eta doluan; japoniarrentzat bisitak penitentzia kutsua du eta estatubatuarrentzat sakrifizio eta harrotasunaren aldarrikapen modukoa da.

Pearl Harbor Historic Sites Visitor Center-en hasiko gara, badiaren ekialdeko ertzean. Sarrera interesgarria da, testuinguru historiko eta emozionalean kokatzen gaituena, eta USS Arizona Memorial-era eramango gaituen ferrya hartuko dugu bertan. Bere egitura zuri konkaboak, galeria itxurakoak, ur gainean flotatzen duela dirudi. Gure begirada hondora bideratzen duen balkoi baten antzekoa da, non mamu-itxurarekin Arizona korazatuaren silueta agertzen den.

Haren hondoratzean 1.117 lagun hil ziren. Haien izenak korridorearen buruan grabatuta daude. Ontzi-hondar hori da –Rosenthalek Iwo Jimako Suribachi mendiaren gainean egindako argazkiarekin batera– AEBek gerran izan zuten parte-hartzearen ikur hunkigarriena.

Lurrera itzultzerakoan, Arizonaren aingura itzelaren ondotik igaro gara National Memorial parkean, USS Bowfin urpeko ontzirantz goazela. 1943 eta 1945 artean Pazifikoan ibili zen etsaien ontziak suntsitzen. Zerbitzu hori utzita, museo gisa atrakatuta dago eta bisitariek bere barrunbeak ikusteko aukera dute. Bisita estu eta klaustrofobiko samarra da.

Erreportajea irekitzen duen argazkian, USS Missouri korazatua, Japoniaren errendizio sinaduraren eszenatokia. Gero, Midle Loch-eko Ozeano Bareko ontzidiaren zati bat eta, azpian, Ford Islandeko Abiazioaren Museoa. Hurrengo orrialdean, USS Misouri USS Bowfin itsaspekoaren ikuspegitik. Orrialde hauetan, ezkerrean, Nimitz Jeneralaren estatua. Erdian, USS Arizonaren memoriala. Eskuinean, erasoan hildako pertsonen ohorezko koadroa. Hurrengo orrialdean ehiza-hegazkinak.

Missouri ontzigaina zapaltzea XX. mendearen bigarren erdialdeko gerra-historian zehar bidaiatzea da, eta ontzi beldurgarri horiek barrutik nolakoak ziren ezagutzeko aukera ederra.

FORD ISLAND Hurrengo arretagunea parean dago, Moku'ume'ume-n, ingelesezko izenez, Ford Island. 1941eko ontzi-basearen ardatza zen, eta bertan zeuden USS Nevada, Arizona, West Virginia, Tennessee, Oklahoma, Maryland eta Kalifornia ontziak. Hori izan zen japoniarren erasoaren jopuntu nagusia. Ekialdeko kostaren ondoan *mooring quay* izeneko atrakalekuen amarradurak ikus daitezke oraindik, eta uhartean zehar ontzi horietako batzuei eskainitako memorialak daude.

Admiral Clarey zubia gurutzatu eta zuzenean Pearl Harborreko bigarren ikur handienera goaz, USS Missouri korazatura. "Big mo" delakoak – bere tripulazioak eman zion izen hori– suzko bataioa 1945eko otsailean izan zuen, eta gerraren azken hilabeteetan giltzarri izan zen. 1992ra arte egon zen jardunean, eta 1995eko urtarrilean museo-ontzi bihurtu zen.

Baina borroka-arma gisa zuen garrantzia alde batera utzita, 1945eko irailaren 2an bihurtu zen Missouri estandarte, 9:00etatik 9:30era bitartean, Japoniak ontzigainean eta Tokioko badian bertan baldintzarik gabeko errendizioa sinatu zuenean.

Gaur egun bere kanoi hilgarriak zigilatuta eta isilik daude, ezerezari apuntatuz, baina horiei begiratze hutsak hotzikara ematen du. Nolanahi ere, ontzigain hori zapaltzea XX. mendearen bigarren erdialdeko gerra-historian zehar bidaiatzea da, eta ontzi beldurgarri horiek barrutik nolakoak ziren ezagutzeko aukera ederra.

Ez oso urrun beste interesgune bat dugu zain. Ez da hain ezaguna, baina ez du interes gutxiago. Izan ere, aireko indarrak garrantzi handia izan zuen bai Hawaiiko baseari egindako erasoan, bai ondoren Ozeano Barean gerra garatzean. Abiazioaren Museoaz ari gara. Bi eraikinetan banatuta dago: nagusia eta Hangar 79.

Kontrol-dorre zuri-gorria ahaztu gabe. Handik uharte osoa ikus daiteke; bista zoragarria da. Esan ohi da Japoniar Inperioaren eta Estatu Batuen arteko gudua itsasoan egin zela eta hegazkin-ontzien arteko borroka izan zela. Egia da neurri handi batean, baina ezin dugu ahaztu azkenean lurraldea infanteriak okupatzen duela eta hegazkin-ontzi bat ez dela ezer hegazkinik gabe. Bai, gerra lehorrean ere egin zen eta, dudarik gabe, airean.

Horregatik iruditzen zaigu Pearl Harborrera joanez gero bisitatu beharrekoa dela. 1945etik aurrerako hegazkinak ikus ditzakegu, Mig 15 sobietarretik F4 Phantom-eraino, F14 Tomcat-a edo Blue Angels-en F/A 18 Hornet-a. Baina, zalantzarik gabe, Bigarren Mundu Gerran erabilitakoak eta bonbardaketan parte hartu zutenak dira protagonista nagusiak.

Sarreran dagoen Zeroa eta bere armamentua da iman handiena, baina Curtis P40B eta B36A, Douglas SBD-2, F4F Wildcat mardula, edo B25 Mitchell bat ere ikus ditzakegu; halako bat erabili zuen J. H. Doolitle-k 1942an Tokio bonbardatzeko, estatubatuarrek japoniar lurraldearen aurka egindako lehen erasoan.

GIDA PRAKTIKOA

GERRA BISITA ANTOLATZEA

Bisita gune nagusiak, hala nola USS Arizona Memorial, USS Bowfin Submarine eta Battleship Missouri Memorial, jendez beteta egoten dira. Ondo planifikatzea komeni da, are erreserbak egitea ere. Gainera, puntu batzuetan, base militarraren barruan daudenez, eserlekua erreserbatu behar da Bisitarien Zentrotik ateratzen den Ford Island Bus Tourrean. Beste aukera bat Honolulutik irteten diren enpresa ugarietako batek antolatutako bisitaldia egitea da.

ZENBAT DENBORA BEHAR DA

Lekurik enblematikoenak (USS Arizona Memorial, USS Bowfin Submarine, Battleship Missouri Memorial eta Pearl Harbor Aviation Museum) ikusteko, nahikoa izango da ondo aprobetxatutako goiz bat.

BESTE INTERESGUNE BATZUK

Marine Corps Memorial, Merry Point Landing, Freedom Tower, Bateria eta Hasbrouck, Fort Kamehameha, Kanekawa WWII Boathouse Historical Marker, Hawaian Star Compass eta Ford Island Historic Trail (Hawaian Star Compass-etik Ford Island Boulevarderaino). Ez ahaztu Banyan Tree ikustea, sustrai zintzilikariak dituen banian izugarria, pikondo motako zuhaitz izugarri bat.

Wanli

«Estralurtarren» herri enigmatikoa

ArgazkiaK: **Sam YEH/AFP**

Shanzinen, Taiwanen kokatutako badia eder batean, etorkizuneko etxeak eraiki ziren 80ko hamarkadan. AEBetako tropen buruzagiei eskaini zizkieten, baina Osaba Sam ez zen inoiz bertan bizi izan. Luxuzko resort hau eraistea erabaki zuten, baina «ontzi estralurtar» hauek zutik jarraitzen dute Wanlin.

Identifikatu gabeko objektu hegalari (OHE) baten forma duten etxe abandonatuek Feitsui hondartza babesten dute –Emerald Bay edo Green Bay izenez ere ezaguna–, Wanli barrutian, New Taipei hirian, Taiwanen. Egun, denborak suntsitutako ontzi estralurtarren antza dute, baina egitura futurista horiek arkitektura modernoaren arketipoak izan ziren garai batean. Matti Suuronen arkitekto finlandiarrak diseinatu zituen 60ko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako baikortasun teknologikoak eta, auskalo, telebistako zientzia fikzio berriaren eraginak gidatuta. Agian diseinu bitxiegia Europarentzat, baina ez Yu Koh Chow taiwandar enpresariarentzat. Arkitekturaren –eta diruaren– zale amorratu honek Suuroneni luxuzko urbanizazioa enkargatu zion Shanzin badia ederrean, AEBetako Armadako agintariei eskaintzeko. Garai hartan, ohikoa zen soldadu estatubatuarren presentzia Taiwanen; azken hau Ekialde Urruneko gatazketan Mendebaldeko potentzien aliatua baitzen. 1978. urtea zen eta poliesterra irlara iristen hasia zen.

Eraikin horiek, jatorrian, txalet txiki gisa diseinatu ziren, eta 126 etxebizitza eraiki ziren guztira Shanzinen. Edozein lurretara garraiatzeko moduko egitura arinak ziren, baina luxuzko urbanizazioa ez zen inoiz guztiz amaitu. Eraikuntzan zehar, hainbat lan-istripu gertatu ziren. Kondairen arabera, ezbeharrak resort-a eraikitzen ari ziren orubea soldadu holandarren hilerri baten gainean zegoelako gertatu ziren. Betiereko kondena OHE herriarentzat.

Azalpena, ordea, askoz xumeagoa da: inbertitzaileak dirurik gabe geratu ziren. Ez estatubatuar ez taiwandar bakar bat ere ez zen etxe horietan bizi izan. Ia hogeita hamar urtez, resorta abandonatuta egon zen, 2008. urtean eraistea erabaki zuten arte. Beraz, lerro hauekin batera doazen irudiak ez dira Shanzingoak. Uharteko beste toki batean, hiriburutik gertu, dagoen Wanlikoak baizik.

Shanzinen ez bezala, Wanlin bi eredu erabili zituzten: “Futuro” eta “Ventura”. Lehenengoaren diseinuak plater hegalari bat imitatzen du, eta bigarrenak paralelepipedo tankera hartzen du. "UFO Village" izeneko herriko etxebizitzetan 90eko hamarkadara arte bizi izan ziren gehienak abandonatu zituzten arte, baldintza klimatikoak eta etxe modernoak mantentzeak exijitzen zuen dirutzak bultzatuta.

Zorionez, egitura futurista bitxi horiek zutik diraute, eta garraio publikoan ere bisita daitezke. Hormez jabetzen den oxidoak eta sastrakak bisitaria film post-apokaliptiko batean murgiltzen dute. Gainera, nahiko erraza da etxe abandonatuen barrura sartzea, 60ko hamarkadan etxebizitza txiki horiek nola egituratu zituzten jakiteko, hain zuzen ere. Espazio biribilak barruan egongela bat, sukalde bat, logela bat eta bainugela bat ditu.

Jakina, barruti lasaia da Wanlin, txitxarren melodiek eta itsasoko brisak bakarrik girotzen dute kalea. Etxebizitzek bertan jarraituko dute momentuz, inoiz izan ez zen etorkizun baten ikur gisa.

Neguan Krakovian

Nazien infernutik bizirik atera zen Bigarren Mundu Gerran, eta gaur egun, Unescok gizateriaren ondare izendatuta, distira berezia du Krakoviak, baita neguan ere. Urteko hilabeterik hotzenetan Poloniako hiri hau helmuga paregabea da: antzinako eta egungo historia, neguko irudiak, literatura, gastronomia aberatsa eta, batez ere, giro atsegina.

NEGUAN KRAKOVIAN

Testua: **Jonathan MARTINEZ** Irudiak: **Getty Images**

Krakoviara etorri nintzen lehen aldian turistek ez zituzten hotelak betetzen, eta kaleak ez zituzten bisitaldi gidatuz eta selfie kolektiboz itotzen. Niri behintzat ez zidan inpresio hori eman. Denborarekin, kostu txikiko hegazkin konpainiek ogien eta arrainen miraria egin zuten, eta Europar Batasuneko merkataritza estandarretan txertatuz joan da Polonia. Udako hilabeteetan alde zaharra —Stare Miasto— musikaz, malabaristez, fakirrez eta merkealdietako saltzaileez betetzen da, eta, beraz, hutsik gabeko estrategia bat trazatu behar izan nuen: neguan etortzea.

Desabantailak ezagutzen ditut. Abenduan egunak laburrak dira eta tenperaturak izotz zifretara iristen dira. Hobe da maletan beroki arropa sartzea, eta ez da komeni irtetea kapa bikoitzeko eskularru eta txano on bat gabe. Bisitaria bertakotzat joko dute, zoru izoztuaren gainean irristadarik gabe ibiltzen ikasiz gero. Eta erraztasuna lortzen duenean, irrist egin nahi izango du urtero Jan Nowak-Jezioranski plazan, Krakowska Galeria merkataritza gunean eta Krakow Głowny tren geltoki nagusiaren ondoan jartzen dituzten patinaje pistetan.

Neguko hilabeteetan, Wawel muinoko gaztelura igo eta hiri elurtua txoribegien bistarekin mirets liteke. Handik, teilatu zuriko maketa baten gainean dauden inurritxoen antzekoak dira oinezkoak. Vistula ibaiaren ertzetan, ontziratze lekuaren parean, kuzkurtuta paseatzen dute, eta oin arrastoak marrazten dituzte elur gainean. Esan al dut muinoaren erraietan haitzulo bat eta dragoi baten estatua bat daudela ahotik sua botatzen? Kondairak dioenez, Skuba izeneko zapatari batek leherrarazi zuen munstroa, sufrez betetako ardi bat jaten emanda.

Gastronomiaz ari garela, esango nuke Poloniako sukaldaritzak hotzaren aurkako erremedioak dituela. Gustu funtzionaleko pertsona naizenez eta menu diskretuak eskertzen ditudanez, Mleczny tabernetako parrandazalea bihurtu nintzen. Kantina proletarioak dira, komunismoaren garaian arrakasta izan zutenak eta oraindik KFCek eta McDonald's batzuez inguraturik irauten dutenak. Grodzka kaleko mleczny tabernak eskola jantokia edo arrantxo militarra du. Hango langileak polonieraz bakarrik hitz egiten du, baina bidaiari galduak ikusi ditut keinuka komunikatzen. Interprete bizkorra da gosea.

Lehenik eta behin, zurek zopa azidoa eskatu dut, zekale-irinezkoa, eta arrautza eta saltxitxa. Batzuetan ogi baten barruan zerbitzatzen da, eta erremedio ona izatearen ospea du ajearen kontra. Bigoak bigarrenerako.

Erreportajea irekitzen duen argazkian, Krakoviako erdiguneko alde zaharra, neguko aireko ikuspegiaz. Lerroon gainean, Piłsudski zubia neguko argiekin. Eskuinean, zopa azidoa, eta arrautza eta saltxitxa. Behean, ezkerrean, Saint Kingako lurrazpiko kapera, Wieliczka gatz-meategian.

Negua Polonian: Krakoviako azokak, Gabonetako zuhaitz handia, gauez Merkatu Plazan zutik argituta, laino-gaua Vistula ibaian barrena. Behean, erdian, Tatrak eta Zakopane hartzen dituen paisaia.

Krakoviako erakargarri turistikoetako bat da, hain zuzen ere, Auschwitzeko sarraski tokitik hurbil dagoela. Hirian bisitak egiten dira, baina abentura librera txangoa egitea ere ongi dago.

Ehiztarien errezeta zaharra da, kapusta kiszona (aza garratza), haragia, onddoak eta arana pasa. Kompot basokada bat: zenbait frutaz egindako zuku espeziatua. Postrerako, sernik edo gazta pastela.

Sukalde ibilbidearekin segitzeko, merezi du Kazimierz auzo judu zaharrera joatea. Han, tradizioa eta modernizazioa, grafitiak eta industria panoramikak, terrazak eta sinagogak uztartzen dituen hipster giroa ernatu da. Jozefa kalearen inguruan, Tripadvisor zaleek gehien eskatzen dituzten jatetxeetako batzuk daude. Beraz, giroa gaztea da, ozarra, tarteka anglofonoa, eta amonaren plater zaharrak fantasia beganoekin eta boutique produktuekin lotzen dira, prezio merkean.

Barrutiko Plaza Berria —Plac Nowy— ezaguna da bere zapiekanka pizza itxurako ogitartekoarengatik. Kale kantoian Alchemia dago, auzuneko tabernarik ezagunenetako bat, non gazteek gaueko arratsaldeak kandelen argitan botatzen dituzten eta kontzertuak egiten diren. Handik metro gutxira, Les Couleurs kafetegian, grzane wino bat (ardo beroa) edan liteke; ingurune hain abegitsua da, nekez itzuli nahiko baituzu kaleko aire zorrotzera. Eta zer esan Singer izeneko tokiaz, mahai bakoitzak bere josteko makina daukan taberna tximiniaduna.

Okaglak-en, Kazimierzen bihotzean bertan, azoka txiki bat antolatu da, non erosten ahal diren David Bowieren biniloak edo barazkiak, plastikozko abalorioak edo zazpi besoko argiak, Leninen bustoarekin egindako irudiak edo bildumazalentzako gurutze nazia ere. Ironia kezkagarria iruditzen zait Shoatik bizirik atera zirenek SSetako domina baten edo Daviden izarrarekin markatutako besoko baten prezioa borrokatzea. Kale haietan filmatu zen Schindlerren zerrenda, eta oraindik Alemaniako enpresariaren fabrika bisita daiteke, museo bihurtua. Han ehunka preso aritu ziren lanean, Piraszowko kontzentrazio esparruan. Leku horretan biktimentzako monumentu izugarri bat baino ez da geratzen.

Krakoviako erakargarri turistikoetako bat da, hain zuzen ere, Auschwitzeko sarraski tokitik hurbil dagoela. Hirian bisitak egiten dira, eskaintze ezberdinekin: minibusa, hoteleko atean jasotzea, cicerone poliglota bat, larrialdiko mokadu bat. Abentura librera txangoa egitea ere ongi dago; kasu horretan, tren bat hartzea komeni da Oswiecim herriraino. Auschwitz du izena alemanez, eta poloniarrek ez dute gogoko inork nahasterik: hiria Oswiecim da, eta Auschwitz hiltegia da.

Bisitariak urtarrilean bidaiatzen badu, agian askapenaren urteurrenaren ospakizunekin bat egingo du. 1945eko urtarrilaren 27an, Armada Gorriak alanbre hesiak zeharkatu zituen, eta, naziak ihesean zihoazela, errausketa labeekin topo egin zuen. Auschwitz I.era sartzean, landa eremuko urbanizazio bat bisitatzeko sentsazioa izan genezake, lorategiekin eta harriztatuekin. Birkenau ondoko zelaian zanpatzen gaitu izuak. Trenbidea eten egiten da leku biluzi baten erdian, eta ez da beste azalpenik zertan eman.

Badirudi Holokaustoaren tristurak jota dagoela Krakovia. Badakit bidaiari batzuk Bigarren Mundu Gerrako dokumentalen aurreiritzi kromatikoagatik txundituta geratzen direla eta estanpa hits bat aurkitzea espero dutela.

Alderantziz. Krakovia argiari egindako omenaldi bat da, eta haren existentzia hutsa miraria da, batez ere kontuan hartzen badugu Varsovia bezalako beste hiri batzuk bonben azpian birrindu zituztela. Ez halabeharrez, Unescok Krakoviako gune historikoa Gizateriaren Ondare gisa onartu zuen.

Hango harribitxia, noski, Merkatu Plaza da —Rynek Gäowny—, otsailera arte Gabonetako argitxoz edertuta egoten dena. Galde diezaiotela Adam Mickiewicz poeta erromantikoari, idulki baten gainean brontzez irudikatua. Auskalo zenbat mila bider entzun duen Santa Maria basilikako iparraldeko dorretik tronpeta melodia hau. Kondairaren arabera, XIII. mendean gezi tatariar batek kornetistaren eztarria zulatu zuen, inbasioaren berri emanez. Horregatik, gaur egun ere doinuak eten egiten dira, turisten gozamenerako eta bertakoen oinazerako, putz malkartsu batekin.

Erdigunetik, hiria kale eta plazatxoen bilbe batean adarkatzen da, non errege eta nobleziaren luxuzko elezaharrak dauden. Altxor arkitektonikoen zerrenda hain da luzea, hiru bizitza beharko liratekeela horiek guztiak ezagutzeko. Adibidez, Jagellonica Unibertsitateko Collegium Novum-etik has daiteke, Udaletxeko Dorrearen itzal gotikoaren azpitik igaro, Oihalen Lonjako anbar artisautza zeharkatu eta San Floriango atea zeharkatu Barbakanarantz, hiria inguratzen zuen harresi zaharraren espiritua hobeto ulertzeko.

Juliusz antzokiaren inguruan, Florian Straszewskiren monolitoaren azpian sartzen bazara, mokadu bat eskaintzen dizun saltzaile ibiltariren bat aurkituko duzu, esan dezagun obwarzanek bat (ogi-erroskilla) edo oscypek bat (ardi gazta ketua). Ondo dator indarrak hartzea, antzinako elizak esploratzen jarraitu aurretik. Wawel katedrala, Hirutasun Santuaren basilika, San Pedro eta San Pabloren eliza... estatua apostolikoen armada batek zaindua.

Ez dakit erdiguneaz aspertzea onargarria den, baina beti dago beste auzune batzuetan atseden hartzeko aukera, beharbada Zwierzyniec barrutiko toki bukolikoetan edo Podgorze inguruko eremuetan. Wieliczka gatz-meategira espedizio bat egin edo... Zakopaneko eski pistetan ibili nahi duenik ere egongo da. Beste egun batean hitz egingo dugu Poloniak kitscherako eta karaokerako duen joeraz.

Ni, orain, hiri zaharreko kalexketan nabil. Neguan, elurra haizearen nahierara jirabiraka dabilenean, arratsaldea noiz eroriko zain egoten naiz, eta jazz kontzertu baten bila ibiltzen naiz klubean edo Muniaka-n, oholtza bat daukan kobazuloan. Abaguneak merezi badu eta tradizioak hala eskatzen badu, vodka batekin topa egingo dut, zurrutada geldoez, segur aski Zolądkowa Gorzka batekin, belar mingotsaren gustuaz gozatzen.

Une batez pentsatu dut Nikolas Koperniko izeneko ikasle bat ezagutu zutela kale hauek. Gogoan izango dut hemen ibili zela Bronislaw Malinowski antropologoa, Melanesiako natiboen bizitza sexuala aztertzera joan aurretik. Imajinatuko dut Wislawa Szymborska poeta, baso bat altxatzen bere lagunekin, Bracka kaleko Nowa Prowincja kafetegian. «Negua atzean uztea», dio Szymborskak, «paisaia bati agur esatea da».

Altxor arkitektonikoen zerrenda hain da luzea, hiru bizitza beharko liratekeela horiek guztiak ezagutzeko. Jagellonica Unibertsitateko Collegium Novum-etik has daiteke, adibidez, bisita.

BARBAGIA

Sardiniar nortasunaren aterpea

Testua: **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak: **U.U. eta Getty Images**

Sardiniako txokorik sardiniarrena da Barbagia, kanpotarrentzat iristeko zailena izan dena historikoki erromatarren garaitik. Izenak berak agerian dakar zein zen konkistatzaileen ikuspegia: barbaroen, arrotzen, lurraldea zen. Barrutik kanpora begiratzean, baina, sardiniera bizi-bizirik dagoen herrixka txikien eskualde bikaina ageri da.

Erreportajea abiatzen duen argazkian, Genargentu eta Oriseiko golkoko parke nazionala, Gorropuko arroila urrunean. Ondoren, Mamoiadak Italia osoan ezagun egin duten inauterietako pertsonaia maskaraduna. Orgosolotik Mamoiada eta Nuorora bidean aurki daitezkeen mahastietako bat agertzen da horrialde honetan. Barbagiatik kostaldera bidean, Gologone errekaren iturburuak ezin ur gardenagoak ditu.

Barbagia neguan zein udan ezagutzeko eremua da. Inauterietako tradizioetatik bide, kale zein hormetako muraletara, sardiniar herriak ahots propioa darabil hemen, eta merezi du gehiegitan isilarazitako adierazpide horri entzutea, lasai, patxadaz eta arretaz bertaratuta. Uharteko hondartzek, ur gardenek, turkesa kolorearen eta harea zuriaren kontrasteak... horrek guztiak erakartzen du bisitaria Sardiniara. Gero, bertako gastronomia edo ondare arkeologiko garrantzitsua dago, baita kostaldeko hiri animatuak eta turismora etorritako arrantzale-herriak ere. Horietatik guztietatik erabat apartean dirudien mundu bat ere badago, ordea, kostaldetik pixka bat urrundutakoan. Minutu batzuk dira autoz barnealderantz, baina nortasunean erabatekoa da aldaketa Barbagiara iristean. Olibondoak, harrizko kalexkak eta Mediterraneoko pinudien artetik eskualde ezin bereziagoa bisitatzeko unea da.

Nuoro da Sardiniako hiriburua (Nùgoro sardinieraz). Sardiniako Atenas ezizena hartu izan du hiriak; udako berotik ihesi, beste edozein urtarotan bertaratuta, nabari daiteke, turismotik apartean, zer nolako eszena intelektual bizia duen Barbagiako hiriburuak, uharteak beste leku gutxitan duen aniztasun kulturalarekin batera. Caffe Tettamanzi kafetegi historikoa

Nazioarteko gatazketatik Sardiniako bertako borroketaraino, zorrotz eta kritiko mintzo dira Orgosoloko hormak. Sardiniera bizi-bizi entzuteko txoko paregabea bihurtzen da mendian gora eraikitako ostatu tradizionala.

da giro horren adibide argienetakoa; XIX. mendetik literaturgileen eta kulturazaleen topagunea da, bertan sartu eta berehala sumatzen denez. Nuorokoa zen Grazia Deledda, XX. mendearen hasieran Literaturako Nobel saria jaso zuen idazlea, eta ezinbesteko bisitetako bat da hiriko alde zaharrean zeukan etxea. Nuoron dago Sardiniako jantzien museoa ere, arkeologikoaren ondoan. Barbagian eta uharte osoan diren janzkeren eta tradizioen berri izateko lekurik egokienetakoa; arropa horiek erabili ohi diren ospakizunetatik kanpo bisitatuz gero uhartea, batez ere. Museoa bera Sardiniako herrixka tradizional baten itxuran eraikita dago, eraikin batetik bestera ibilian uharteko historian eta ohituretan ibilbide bat proposatuz.

MURAL ERREBELDEAK Hiriburuaren inguruan, beti gertu baina apartean, mendi alderantz eginda, Barbagiako herrietan sardiniar identitatea gordetzen da. Hizkuntzatik kultur-adierazpideetara, inauterietatik artzainen arteko kantu inprobisatura eta, zelan ez, auzotar eta herritarren arteko harreman sare konplikatuetaraino, denbora hartu eta beste Sardinia horretan murgildu gara gu ere.

Nuorotik kanpo, 13 kilometrora dagoen Orgosolo da, zalantzarik gabe, Barbagiako herririk ezagunena. Nortasun independente eta sarritan matxinoari ondoen eutsi dion herrietako bat da; besteak beste, poliziari ihesi

zebilen jendeak aterpe hartu ohi zuen bertan. 1961eko "Banditi a Orgosolo" filmak (Orgosoloko bidelapurrak) fama hori areagotu zuen. Gerora, nortasun errebelde horren beste agerkari batek erakarri ditu bisitariak herrira: Orgosoloko muralek. Herrira sartu aurretik ageri dira lehen irudiak, eta bertako kaleetan ibiltzea erabateko esperientzia da. Nazioarteko gatazketatik Sardiniako bertako borroketaraino, zorrotz eta kritiko mintzo dira Orgosoloko hormak.

Sardiniako esperientziarik interesgarrienetakoa, herritik kanpora, mendian gora eraikitako ostatu tradizionalean egotea izan zen. Turistez gain, Orgosoloko herritar ugarik bertara jotzen dute larunbat iluntzeetan trago bat hartzera eta berbetan eta eztabaidan egotera; sardiniera bizi-bizi entzuteko txoko paregabea bihurtzen da. Eta, biharamunean, bezperako ordu luzeak eta tragoak egon ez balira legez, harrizko etxolen ondoan, ardi-larruz jantzita, artzainen bazkaritarako txanda da, berariaz antolatutako etxolan arkumea hainbat eratara prestaturik zerbitzatzeko.

INAUTERIAK Barbagiako txoko bakoitzean bertako ardo, gazta, bildots eta pasta bereziena dastatzeko aukera izaten da. Mamoiada herrian (Mamujada sardinieraz), esaterako, Cannonau ardoa egiten duen Sedilesu upategia dago; botila ezagunenak Mamuthone izena du, ezin bestela izan:

Grotta del Bue Marino haitzuloak eta Cala Gonone. Barbagia pareko kostaldean ia ez dago herririk, ez eta errepiderik ere, itsasoz edo lurrez joanda txoko paregabeak aurki daitezke. Hurrengo orrialdean, Serra Orrios nuraghi herria, Barbagiako Dorgali herrian. Eta Gavoi, Barbagiako herririk ederrenetakoa. Orgosolo herriak errebelde eta matxino fama du, ihesi ibili diren askoren aterpe. Azken hamarkadetan herriko mural aldarrikatzaileek ere bisitari asko erakarri dituzte.

Mamoiadak Italia osoan ezagun egin duten inauterietako pertsonaia maskaradunak dira, *mamuthones* eta *issohadores*. Zalantzarik gabe, inauteria inguruan Sardinian ibiliz gero paregabeko aukera da, baina bestela ere, gaiari buruzko museo interesgarria dago herrian.

Eskualde luze eta zabala da, herrixka bakoitzak bere misterioak ditu, betiere mendi, haitzulo, olibondo zein mahasti-zelai eta besteko basa-eremuen artean. Gavoi herria Sardiniako ederrenetakoa da, Gennargentuko basoen erdian, Gusana aintzirara begira. Harrizko kalexka estuetan paseatuta ostatu interesgarriak (mural eta guzti haietako zenbait) aurkituko ditugu, beti mahaira esertzeko gonbitarekin: "Gavoi fiore" sardiniar gaztaren txoko garrantzitsuenetakoa da.

Errepidean are gorago eginda, Fonni dator (Fonne sardinieraz). Sardiniako herririk garaiena da, itsasoaren mailatik mila metrora (Mediterraneoa ez dago urrun marra zuzenean, baina beste mundu bat dirudi Barbagiatik begira). Gennargentuko mendi ibilbideetarako abiapuntua da herria; besteak beste, Sardiniako mendirik garaienera iristeko bidea Fonnin hartzen da Bruncu Spina eski estazioraino joateko. Eskualde menditsu honen tontorra 1.834 metroko Punta La Marmora da (Perdas Carpias sardinieraz).

KOSTALDE EZINEZKOA Sardinia erdialdeko eskualde menditsuak badu kostalderik; uhartea izanda, hala behar zuen. Egia da ez daukala gainerako eskualdeek daukaten hiri, portu edo herrixka ezagunik, besteak beste, barnealdeko artzain-kulturan babestutako herria izan delako Barbagia. Hala, itsasoak urrun dirudi, baina uharteko kostalde berezienetakoa eta gutxien bisitaturikoa dauka, iristeko zailtasunagatik, besteak beste. Cala Gonone herrixka turistikora heltzeko Dorgalitik tunela igaro behar da, Genargentu erraldoiaren beste aldera. Bat-batean, parez pare, mendien eta labarren magalean ageri da Mediterraneoa. Gainerako kostaldeko lekuetara ontziz iritsi behar da, edo kostaldetik eta mendi magaletik oinez joanda. Horregatik daude, ziur aski, Sardiniako kalarik ederrenetakoak alde honetan, Bue Marino itsas kobazuloak edo Cala Luna, esaterako.

Barbagiako hegoaldeko kostalderaino itsasoz edo barnealdetik doan errepidetik goaz, Gennargentu parke nazionalaren ertzetik. Bide horretatik hartzen da Tiscaliko gune arkeologiko bereziraino doan xendra ere, ordu pare batez mendian gora ibilita. Errepidera itzulitakoan, Gola di Gorropu arroila estua atzean utzita, Urzuleira iritsi eta beherantz egiten du bideak, kostalderantz goazen seinale. Baunei herritik Arbataxeraino doan bideak uharteko trenbiderik ederrenetakoari egiten dio leku. Bien artean, izenak berak atentzioa ematen duen herria dago: Santa Maria Navarrese, izen bereko dorre eta hondartza eder batekin. Herria XX. mendean sortu zen, baina bertako eliza oso aspaldikoa da, eta aldameneko olibondoari begira, biak ere duela mila urte ingurukoak dira. Gurutzaden garaian Mediterraneoko txoko honetaraino iritsi zen Nafarroako erregearen alaba batek eraikiarazi ei zuen tenplua. Kondaira ala egia, eskualde honetan dena nahasi samar lotzen da; eta horrela, beste mila urtez ere bizi liteke.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Bilbotik hegaldi zuzenak daude Cagliarira, Sardiniako hiriburura, udaberritik uda amaierara, Volotea konpainiarekin. Olbia edo Alguer aireportuetara iristeko Europako hiriren batetik joan behar da. Beste aukera bat ferryz joatea da, Bartzelonatik (edo Italiatik); autoa edo furgoneta eramaten badugu, hau da aukera egokiena.

OSTATUA

Denetariko ostatu motak aurki daitezke. Denboralditik kanpo batzuk itxita daude, baina arazo handirik gabe topa liteke ostatu egokia. Udan eskaintza handiagoa izan arren, bisitari kopuruak ere gora egiten du, baina, oro har, kostaldeko herrietan baino gutxiago eta merkeago har liteke ostatu.

GARRAIOA

Sardiniako eskualderik apartatuenetakoa da, erdi-erdian egon arren. Tarteka bada garraio publikorik herri batzuetara, eta oso motel ibili arren trenez ere txango interesgarria egin liteke. Baina, oro har, norbere garraioa behar da eskualdean barna ibiltzeko.

CASTRO VALNERA

Bilbo Handiko askatasun haize



Castro Valnera ez dago Euskal Herrian, baina Euskal Herriko mendizale askoren bisita jasotzen du. Bilbo Handiko milioi pasa biztanleen askatasun haize iturria da, Bizkaiko hiriburutik ordubete eskasera baitago autoz 1.718 metroko mendi puska hau. Amildegi ikaragarria du, gainera, Kantabriako Pas bailara aldera. Mendi buelta aberatsez gain, mendi-eskia eta bizikleta saio ikusgarriak eskaintzen ditu.

Testua eta argazkiak: **Andoni URBISTONDO**

Castro Valnera Kantabriako Mendietako tontorra da eta mendikate horretako ekialdeko muturrean altxatzen da. Euskal Herrian mendebaldeen dagoen Karrantza bailaratik nahiko gertu. Euskaldunok Pirinioetara joateko joera handia izaten dugu, han 2.000 eta 3.000 metrotik gorako mendi asko daudelako aukeran. Castro Valnera ez dago Pirinioetan, baina Pirinioak urruti geratzen zaizkionari aukera onak eskaintzen dizkio. 1.718 metrorekin, urrun dauka 2.000 metroko langa, baina inguruan 1.500 metrotik gorako dozena pasa mendi ikusgarri ditu.

Euskal Herriko hiri eta eskualde biztanletsuenetik nahiko gertu dago Castro Valnera. Bilbotik Lunada bailarara ordubete pasa baino ez dago, autoz, eta horrek mendigune hura Bilbo Handiko arnasgune nagusi bilakatzea ekarri du. Bizkaiko mendizale askok ondo ezagutzen dute ingurua, hainbat aisi aukera eskaintzen dituelako. Nafarroa edo Huescako Pirinioak askoz

urrunago dituzte, hiru ordu edo gehiago autoz, egun osoko irteera hortaz. Lunadara eta Castro Valnera egun erdikoa ahalbidetzen du.

Ibiltzeko paradisua da Lunada inguruko mendi gunea: Cubada Grande, Pico de la Miel, Pico Lusa... 1.500-1.600 metroko mendi asko daude. Pico del Fraile ikusgarria ere bai, Lunada mendate gainean, baina gailurrean Espainiako Aire Armadaren gune bat dagoelako, bertaratzea mugatuta dago. Ohiko udazkenetan Lunadako mendiak dagoeneko zuriz jantzita behar lukete, baina aurten euriz eta elurrez urri izan da, eta tenperaturaz bero. Etorriko da negua eta, beti etortzen delako, mendi-eskia gustuko dutenentzat txoko maitatua da Lunada eta Castro Valnera. Elur toki ezin egokiagoa da, ipar-mendebaldeko erauntsietan metroka neurtzen baita elur geruza han.

Castro Valnera eta Pico de la Miel beste ur banalerroan kokatzen dira. Alegia, iparrera isurtzen diren urak Kantauri itsasora doaz, Kantabriako Pas eskualdean barrena. Lerro zuzenean 35 kilometro eskas daude itsasoraino

Erreportajea irekitzen duen orrian, Pico de la Miel gailurra, La Piluva lepoa, eta Castro Valnera mendia. Orri honetan, Castro Valnera gailurra, 1.718 metroko menditzarra. Bista bikainak daude bertatik. Hurrengo orriko lau argazki txikietan, ezker-eskuin: mendizale bat hasierako pagadian barrena, Pico de la Miel gailurra, gailurra bera eta Kantabriako Pas aldera duen amildegi handia, eta El Bernacho aparkalekutik gertu dauden bordak.

Castro Valnera mendi erraza da egun argietan, zorua lehor antzean dagoenean. Lainoa edo euria denean, edota elurra eta bisutsa badira, kontuz ibili behar da. Burgos aldetik egiten da igoerarik ohikoena.

gailurretik. Hegora doazen urak Mediterraneoan itsasoratzen dira, Ebro ibaiaren bidez. Kokapen horrek zizelkatu ditu mendi hauek milaka urtetan, eta aintzat hartzeko moduko ohar pare bat jakinaraztea komeni da.

Castro Valnera mendi erraza da egun argietan, zorua lehor antzean dagoenean. Lainoa edo euria denean, edota elurra eta bisutsa badira, kontuz ibili behar da. Burgos aldetik egiten da igoerarik ohikoena. Hego isuria samur samarra da, ordu pare bateko bidea eta 600 metro pasatxoko desnibela. Castro Valnerak, dena den, 1.700 metro pasa ditu, eta iparrera amildegi handia dauka. Beldurtzeko modukoa, egiari zor, 1.400 metro beherago baitaude Kantabriako Pas bailarako lehen etxeak. Gailurretik zulo handia sumatzen da, eta zorua irristakorra dagoenean oso tentuz ibili behar da. Iparrerantz amiltzea heriotzaren parekoa izan liteke. Elurra lodi dagoenean, ondo egonkortuta, eta material egokia erabiliz gero, arriskua neurrikoa da.

Geologikoki eremu aski interesgarria da Lunada aldea. Glaziar egitura agerikoa da bi isurietan. U hizkiaren itxurako bailarak erakusten digu hori, milaka urte batzuk atzera glaziarrak Pas bailararaino iristen baitziren. Burgosko Espinosa de los Monteros herriraino ere bai, Lunada mendatetik 10-12 kilometro hegora. Glaziar haiek han bizi izan zirenen egunerokoa moldatu zuten, eta egun, erliebe aztarnei esker, milaka urte atzera paraje haiek nolakoak ziren jakin dezakegu.

Bista itzelak Azaroko lehen egunean elur arrastorik ez da Castro Valneran, zoritxarrez. Ibilbide zirkularra egingo dugu: Collado de La Canal izeneko bailaran barrena igo, Castro Valnera gailurrera, eta Valnera bera eta Pico de la Miel banatzen dituen Piluca lepotik itzuli, aparkalekuraino.

Bideak galbiderik ez du. Bernacho aparkalekuko pista ondoan ezkerrera non hartu behar den markatuta dago, seinale zuri-hori eta zuri-berdeekin. Pagadi dotorea zeharkatzen da hasieran, baina belazeak azkar irabazten

dio tokia zuhaitzari. Klima gogor samarra den seinale. Collado de la Canal delakora iritsiko gara, 45 minututan (1.410 metro), Cubada Grande (1.605 metro) eta Castro Valnera (1.718 metro) banatzen dituen lepoa. Bideak modu bitxian egiten du maldan gora, xenda sigi-sagatsuan, eta azkar Castro Valnerako menditzarra agertuko zaigu begien aurrean. Batere misteriorik gabe iritsiko gara tontorrera, azken pausoetan besoak eta hankak erabiltzeko beharrean izango bagara ere.

Gailurretik bista itzelak daude: Cubada Grande hegora, Europako Mendiak mendebaldera, Santander Kantabriako hiriburua eta Kantauri itsasoa iparrera, eta Pico de la Miel ekialdera. Urrunean garbi sumatzen dira, besteak beste, Gorobel, Gorbeia eta Anbotoren silueta dotorea. Begiradak, baina, ipar isurira amiltzen den zulora ihes egiten du, benetan ikusgarria delako: 1.400 metroko zuloa Pas bailararaino, eta belar malkartsuetan barrena. Ipar aurpegian dozena erdi bide daude mendiko eskia egiteko, edota pioleta eta kranpoiekin igotzeko. Zenbaitetan, maldek 55-60º desnibela izan ditzakete, eta jarduera hori egiten bada, arreta handiz ibili behar dela esan beharrik ez dago.

Castro Valnera garaiera handiko mendia da, eta handitasun horren erakusle da bere goragunea (goraguneak tontor batetik ondoan dagoen bestearekiko igoera aldea neurtzen du), Burgos probintzian goragune handiena duen mendia izanik. Aldiz, Burgosko 15 mendi Castro Valnera baino garaiagoak dira, horietako gehienak Iberiar Mendietan.

Itzulerako bidean arreta apur bat jarri behar da Castro Valnera eta Pico de la Miel gailurren artean kokatzen den La Piluca lepora iritsi arte. Handik Bernacho aparkalekuko pista ikusten da, eta autoraino itzuli beste lanik ez zaigu geratuko. La Piluca lepotik gertu dagoen harrespila batean eskuinerantz egin behar da (zuzen jarraituz gero Pico de la Miel inguratzen da, Lunada eski-estazioraino). Aparkalekurainoko xenda zikin samarra dago tarteka, baina ordu erdi pasatxoan egiten da, erraz.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Castro Valnera Kantabria eta Burgos banatzen dituen mendia da. Kantabriako Mendietako ekialdean dago, Bilbotik ordubete pasatxora autoz. Burgosko Espinosa de los Monteros herritik iristen da errazen.

NOLA IRITSI

Bilbotik Enkarterri zeharkatu behar da eta, Balmaseda igarota, Burgosko probintzian barrena jarraitu, Mena bailara eta Espinosa de los Monteros herrira arte. Han Estacas de Trueba eta Portillo de Lunada mendateetara daraman bidea hartu behar da, iparrera. Barcenas eta Las Machorras herrixkak pasa ondoren, Portillo de Lunada aldera jo behar da, 7. kilometroan. Lunada mendatean gora, hiru kilometrora, seinale bat dago, “Alto Castro Valnera. El Bernacho” jartzen duena. Autoak ibil daitezkeen pista da, eta bizpahiru kilometro egin behar dira aparkaleku antzeko batera iristeko.

EZAUGARRIAK

1.718 metroko mendi puska da Castro Valnera. “Val Nera” hitzetatik datorkio izena: bailara beltza. Iparrera amildegi sakona dauka, 1.400 metrokoa. Igoera samurra du Bernachotik, hiruzpalau orduko buelta. Mendieskia egiteko gune aproposa da, eta bizikleta maite dutenentzat ere bai, 30-40 kilometroan 1.000 metrotik gorako hiruzpalau mendate baitaude.

BERTIZKO JAURERRIA

Naturaren arnasgunea

Pirinioak burua altxatzen hasten diren Baztango bailararen erdian, herrixkez inguraturik dago gure helmuga: Bertizko jaurerrian, hain zuzen. Historiaz eta kondairez betea den tokia, naturaren arnasgunea eta naturaren zaintzari egindako monumentua. Natura zaleontzat nahitaezko bisita.

Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Iñigo URIZ, Jagoba MANTEROLA eta Getty Images**

"Naturak beti garaituko du gizona". Horixe esan omen zuen Dorotea Fernandez Moralesek, naturak gainezka egiten duen Bertizko jaurerriaren azkeneko bi jabeetako batek. Pedro Ziga Mayorekin ezkondu zen Dorotea eta 1898. urtean bien artean erosi zuten abandonaturik zegoen Baztan (Nafarroa) haraneko txoko hau. XX. mende hasieran, orduko gizarteak zuen ikusmoldearen aurkako jarrera izan zuen Pedro Zigak. Iruñeko Udaletxe plazan duela gutxi arte oraindik irekita zegoen oihal-denda bat zuen bere sendiak, eta dirutxo bat egin zuen hari esker. Hori dela eta, Zuzenbidean doktorea zenak animaliak eta landareak zaintzen zebiltzan elkarteak diruz lagundu zituen eta zezenketen aurkako kanpaina abiatu zuen, non eta Iruñean.

Hasierako esaldiari segika, gizakiaren eta naturaren harreman harmonia tsua bilatuz, Bertizko 20,40 kilometro karratuko lursail honetako baso misto-atlantikoa babesteko neurriak hartu zituzten, Erdi Arotik ohikoak ziren egur ustiaketak debekatuz –zenbait eremu galduta zeuden ordurako–, jauregi zaharra berreraikiz, sarrerako zubia sortuz eta lorategia garaian modan zen frantziar estilo erromantiko eta modernistan –urmael, heskai, pergola eta estalpez horniturik– eraberrituz eta zabalduz.

NAFARROAKO LEHENA Senar-emazte bien heriotzak ez zituen eraman naturarekiko haien konpromisoa. Hala, 1949an, Bertizko jaurerria Nafarroari, eta, bere izenean, Foru Diputazioari laga zioten dohaintzan, baldin eta defendatu zuten naturarekiko errespetua hedatzeko baliatzen bazuten eta parkea haiek utzi moduan mantentzen bazuten erakunde biek. Printzipio horiei segituz sortu zen, 35 urte geroago, Nafarroako lehen natur parkea.

Historia honi esker, gaur egun Iberiar penintsula osoko pagadirik ikusgarrienetakoaz goza dezakegu nafar Pirinioetako txoko lasai eta heze honetan. Horrez gain, parkearen sarreran den lorategi botanikoan, bertako zein atzerriko 126 espezie ezberdinetako zuhaitz, landare eta loreak deskubritu ditzakegu zentzumen guztien bidez, horretarako espresuki sortutako ibilbide batean. Balkanetako gaztainondoa, igebelarra, Txinako gingkoa eta Kaliforniako sekuoia dira horietako batzuk. Urtxintxek, okilek, espezie anitzetako hegaztiek eta bertze animalia xarmagarri batzuek, hala nola burtainak, ur-ipurtatsak, desman piriniotarrak, arkanbeleak eta cerambixak, babesgune ezin hobea aurkitzen dute haien artean. Horien inguruko informazio guztia tenientetxeak hartzen duen interpretazio zentroan aurkitzen ahal dugu.

Lorategi botanikoko aintzira da Bertizen derrigor bisitatu behar den tokietako bat. Hango urek inguratzen dituzten espezieak islatzen dituzte, eta beste garai batekoak ematen duten irudi sinestezin eta hipnotikoak oparitzen dizkigute, erreportaje hau irekitzen duena eta ezkerrekoa kasu. Tamaina handiko zuhaitzak, Kaliforniako sekuoiak, parkearen "jabe" egin dira, kanpoaldeak atseden hartzeko edo bazkaltzeko espazio ezin hobea eskaintzen digun bitartean.

Fernandez eta Zigaren etxebizitza izan zen jauregi zaharberrituan jardunaldiak, topaketak, biltzarrak eta hezkuntza jarduerak egiten dira –Nafarroako eskoletako haurren helmuga da jaurerria eta gazteentzat aterpe bat dauka–. Beheko solairuan, erakusketa aretoan, berriz, naturari eta kulturari buruzko aldi baterako erakusketak antolatzen dira. Aparkalekutik hurbil, askaltoki estalia ere aurkituko dugu mahaiz eta jarlekuz, ura eta sua egiten ahal den toki bakarra izanik. Handik gertu, harrera gunean, erosten ahal dira tiketak (sarrera orokorrak 3€ko prezioa du). Irekiera egunak eta ordutegia joan aurrez kontsulta daitezke *www.parquedebertiz.es* webean.

XENDRAK ETA LAMINAK Fernandezek eta Zigak diseinaturiko xendra eta ibilbideetan ibili gaitezke gaur egun. Orotara, zailtasun eta luzera ezberdineko zortzi bide ditugu zain, Bertizko jaurerritik irtenda. Aizkolegi deritzona da horietako bat, eremu honetako lekurik altuenera iristen den 11 kilometroko –6 bat ordu– seinaleztatutako pasiera, eta handik Bertiz osoa eta inguruetako ibarrak arras ongi ikusten ahal dira. Azken jabeek bertan eraiki zuten udako jauregia, egun hondatuta dagoena. Irretarazu deritzon ibilbidean, bestetik, usadiozko baso-erabileren arrastoak aurkituko ditugu, artzaintza, ikazkintza, gaztainen bilketa... azaltzen dizkiguten panelez lagundurik. Txirrindularientzat ere bada aukera: Plazazelaiko ibilbidea haientzat baimenduta dagoen bakarra izanik, joan-etorrian 16 kilometro ditu.

Bidexka horietan, kondairek diotenez, zuhaitzez eta animaliez gain, errekatxoen bazterretan laminaren bat ere aurkitzen ahal dugu. Nahiz eta, le gendetako baten arabera, bailara hauetako gizonak maitemintzen saiatu zirelako, biztanleek pozoiz hil omen zituzten lamina guztiak. Inguruotako herrixka ia gehienetako armarrietan daude izaki mitologiko hauek, gizakiaren eta naturaren betiereko borrokaren erakusgarri.

Gerren izugarrikeriaz, San Telmo museoan

URRIAK 29-URTARRILAK 29

Erbestea, kontzentrazio esparruak eta gerra hizpide dituzten obrak "Indésirables. Bonbardaketatik esparrura. Erbesteratzearen ibilbideak" erakusketan bildu ditu Donostiako San Telmo museoak. Diziplina anitzeko lan artistikoen bidez, diskriminazio politikoa eta arraza bereizkeria, gerrak eta bonbardaketak, edo erbesteratutako eta deportatutako pertsonen garraioa jorratzen ditu.

Erakusketa 10.00etatik 20.00etara bisita daiteke, asteartetik igandera. Sarrera orokorrak 6 euro balio du, eta murriztuak 3. Leihatilan eta online eros daitezke. Erakusketak, halaber, hitzaldi batzuk eta bisita gidatuak eskaintzen ditu (asteartetan eta larunbatetan). Programazioa San Telmo museoaren webgunean kontsulta daiteke. Dokumentazio historikoa, testu teorikoak, argazkiak eta bideo dokumentalak ere baditu. Izan ere, nazioarteko zenbait erakundek parte hartu dute erakusketan.

Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Elsbeth Kasseren artxibotik ateratako marrazkiak eta koadernoak. Akuarelak, marrazkiak eta argazkiak, Europako historiaren zati baten lekuko. Gurutze Gorriko erizaina izan zen Kasser 36ko gerran, eta 1940tik 1943ra Gurseko kontzentrazio esparruan bizi izan zen. Horrela, han egon ziren artistek eta pentsalariek egindako lanak dira, izugarrikeria islatzen dutenak. Hara iritsi ziren lehenengoak euskaldunak izan ziren, 1939ko apirilean. Hori dela eta, erakusketan ideia bat nabarmendu dute: iragana ez da desagertzen, orainera itzultzen da.

17 talde izango dira Hatortxu Rocken

ABENDUAK 17

"Gertu" lelopean, 17 talde igoko dira abenduaren 17an, Hatortxu Rocken oholtzara. La Furia, Mafalda, El Trono de Judas, Nøgen, Bulego, Angelus Apatrida, Soziedad Alkoholika, Merina Gris, Skakeitan, Segismundo Toxicómano, Odolkiak Ordainetan, Brigade Loco, Afu, Tremenda Jauría, Ødei, DJ Plan B eta Raimundo el Canastero dira aurtengo karteleko protagonistak.

23 urte eta 26 edizioetan «aurrera egin» dela iritzi du antolakuntzak. «Zerrenda luze hori desagertzen ari da. Euskal preso politiko asko Euskal Herriko espetxeetan daude. Baina ez denak. Oraindik bada lana».

Hamar euskal zinta Mendi Filmen

ABENDUAK 9-18

Mendia du ardatz BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdiak. 190 film aurkeztu dira, eta horien artean 59 hautatu dituzte Sail Ofizialerako, Zabalandi sailerako eta Mendi Film Bizkaia Ternua Bekarako; horietatik hamar, Euskal Herrikoak. Abenduaren 9tik 18ra bitarte «mendiko, abenturako, muturreko kiroletako eta naturako zinemaren epizentroa izango da» Bilbo, antolatzaileen esanetan.

BIDAIATZEAZ HAUSNARREAN, HITZEZ ETA IRUDIZ

Hainbat bidaia, bidaiatzeko modu edo bidaiaren inguruko gai bildu dituzte lan koral honen hiru egileek: Susana Jodra, Iratxe Larrea eta Josean Morlesin. Hizkuntza plastiko ezberdinak erabili dituzte horretarako, baita idatzizko komunikazioa baliatu ere. Bidaia, viaje, viagem, travel, voyage... hizkuntza ezberdinetan "bidaia" hitzak dituen aldaera eta esanahi ezberdin askotarikoak bildu dituzte ausardiaz eta hizkuntzen mugak gainditu. Ez da, ordea, lan honen asmoa "bidaia" bera definitzea, baizik eta parte hartzaile bakoitzak bidaiatzeari buruz dituen sentimendu eta sentsazioak, iruditeria, esperientziak eta bizipenak biltzea eta, batik bat, irakurlearekin partekatzea. Bon voyage!

Bidaia - Viaje - Viagem - Travel - Voyage
Susana Jodra, Iratxe Larrea eta Josean Morlesin
EHU. 2022 .
Hainbat hizkuntza.

Las Terrazas

Kubako nekazaritza- eta eko-turismoaren aitzindariak

Musika, artea, historia, nekazaritza... giza sorkuntza anitzek, gizakiak berak eta naturak bat egiten duten gunea da Kubako Las Terrazas, non garapen jasangarrian oinarrituriko landa-esperientzia batetik proiektu komunitario bat garatzen den, Iraultzaren hasieratik irauten duen bakanetakoa izanik.

Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Getty Images**

1960ko hamarkadaren bukaeran, AEBetako mugimendu bakezale hippya eta Europako 1968ko Maiatza heterogeneoa sistema predatzaile baten josturak hautsi nahian zebiltzanean, Kubako Iraultzak hamar urte bete zituen eta, protesta antzuetatik ekintza eraldatzaileetarako pausoa emana zuen jadanik maila askotan. Urte horietan, ideia ekologistek, baina batez ere iraultzaileek bultzaturik, sortu zen Habanatik 60 bat kilometrora, Pinar del Rio hiriaren aldamenean (Artemisa probintzian), San Juan ibaiaren ertzetan, Las Terrazas proiektua.

XX. mendean zehar ustiaketa eta oihan-galtze prozesu etengabea jasan zuen Sierra del Rosario mendilerro hezetsuan kokatzen da komunitate hau. Herrialde karibetarrean orobat bilatzen den hondartzan eta kulturan oinarrituriko masa-turismotik erabat aldenduta, ekologia eta artea biltzen ditu hasieratik bertatik Las Terrazasek. Langile talde batek sortu zuen Kubako estreinako komunitate jasangarri hau. Inguruko kobre-meategien-

gatik, kafe-landa zabalengatik eta basogintza basatiagatik kolonia garaitik heriotzara kondenaturik zegoen mendilerroko bioaniztasuna salbatu zuten, abian jarritako programari esker, eta artista, artisau, musikari eta kafe-laborariekin berpiztu, gune natural zoragarri hau.

1985ean, Unescok Biosferaren Erreserba izendatu zuen Rosario mendilerroa eta, horren harira, komunitatea zonaldearen barruan izaki, turismoa berritzeko eta garatzeko planak sortzen hasi ziren, ordura arteko nekaza ritza jarduna emeki-emeki berbideratuz. Ia hamar urte geroago agertu ziren, inguruarekin erabateko sinbiosian, Moka lau izarreko hotel ikonikoa eta Kubako lehen ostatu ekologikoa; ostatua eskaintzen duten hiribilduetako etxe partikular ugari, baita Kubako hegaztien izenez bataiaturiko hamaika landa-etxola ere; bertako produktuak eskaintzen dituzten jatetxe eta kafetegiak –Café de Mariaren kafe bikainak dastatu behar, bai ala bai–; nekazaritza-turismoan oinarritutako ostatu eta zerbitzuak, erakusketak eta artisauen atelierrak –aldez aurretik deitzea komeni, hagitzetan itxita

Habanako kale-giro zalapartatsutik ihes egiteko aukera ezin hobea eskaintzen du Las Terrazasek. Irudietan ikus daitekeenez, natura, historia, aisialdia eta gastronomia dira leku bitxi honen oinarriak. Ostatu eta jatetxe bihurturiko etxe tradizionalak (erreportajea zabaltzen), ibilaldiak egiteko Sierra del Rosario mendilerroa (erdian), kafe-soroen aztarnak (hurrengo orrialdean) eta bainu lasai bat hartzeko urjauziak (lerroon gainean); denetik du.

egoten baitira tokiok–. Hala, hasierako amets zoro hura 1.000 biztanleko hiri sakabanatu bat izatera iritsi da.

Urteko zenbait momentutan jendez gainezka egiten badu ere, gordetzen du oraindik txikitasun eta lasaitasunaren xarma gozoa. Lekuaren berezko edertasunagatik bertako eta atzerriko bisitariak erakartzen ditu berdinberdin. Abenturazaleek, adibidez, Kuba guziko lehen canopy edo tirolina aurkitzen ahal dute bertan, zeinaren gainean gozatu ditzakete airetik, 1.600 metroko luzera duen kable batean zintzilik eta ziztu bizian, paisaia zoragarrion ikuspegiak. Airetik uretara jauzi eginez, arraun-txalupak eta uretako bizikletak alokatzen ahal dira San Juan lakuan ibiltzeko.

Naturazaleek, bestalde, inguruetan txangoak egiten ahal dituzte ehun espezie ezberdinetako hegazti exotikoz beteriko muino tropikal hostotsuak miretsiz. Mendi-ibilaldi aunitz egin daitezke bertan, seinaleztatutako bideetan barrena: San Claudio, El Contento, El Taburete, La Serafina, Las Delicias edota Valle del Bayate. Paseo luze baten ostean erlaxatu nahi duenak, berriz, naturan bertan bainuak hartzeko aukera dauka; bereziki gomenda-

garriak San Juan ibaian sortzen diren ur-jauzi freskoak eta Bayate bainuetxea.

Era berean, Kubak kafe laborantzarekin duen lotura historikoa ere bertatik bertara ezagut daiteke, eremu hau izan baitzen haren sorlekua. Landa- eta nekazaritza-turismoaren zaleek komunitatearen barnealdeak ezagutzeko aukera dute, bizilagunekin hitz eta pitz ordutxoak eman, ekoizleak eta haien bizimodua bertatik bertara ezagutu, tradizioak partekatu... Hori guz tia Hacienda Union-en egitea onena, non jatetxe eta lorategi tropikal eder bat dauden. Aldi berean, partzialki zaharberritutako Cafetal Buenavistaren hondakinak ere bisita daitezke, non jatetxe espezializatu bat ere badagoen.

Irla guztian barrena hedaturik den izpiritu artistiko eta musikalak badu bere tokia txoko honetan. Bertako artisten erakusketak eta dendak aurkituko ditugu –gomendagarriena, Lester Campa nazioarteko artistaren galeria–, bai eta mundu osoan zehar ezagun egin zen Polo Montañez nezakari-kantariaren museo-etxea ere, bertan jaioa baita musikari autodidakta.

GIDA PRAKTIKOA

ARGIBIDE GEHIAGO

Webgune ofiziala:
www.lasterrazas.cu.
Telefonoak: (53) (48) 278555.
E-posta helbidea:
reservas@terrazas.tur.cu

NOLA IRITSI

Las Terrazas konplexua Habanatik 60 kilometro mendebaldera dago, Habana-Pinar del Rio autobide nazionalaren 52. kilometroan zehazkiago. Taxiz erraz irits daiteke haraino. Hala ere, Omnibus Viazul autobus zerbitzu publikoa da gomendatuena, arras merkea baita. www.viazul.wetransp.com webgunearen bitartez egin daiteke bidaiaren erreserba.

NOIZ JOAN

Bertaratzeko garairik onena sasoi lehorra da, azarotik apirilera artekoa. Orduan izaten da klima freskoagoa, euri tropikal gutxirekin eta urakanik gabe. Egun bateko bisita nahikoa izan daiteke lekua ezagutzeko, baina naturazalea bazara, etxe edo hotel batean har dezakezu ostatu gau batez.

BESTELAKOAK

Supermerkatu eta dendez gain, gasolindegia eta 24 orduko mediku zerbitzua ditu. Herrialdeko turismo-produktu eta -zerbitzu guztiak ordaintzeko, peso bihurgarria (CUC) erabiltzen da, batez ere.

MEDELLIN: METAMORFOSI ERRADIKALA

Hitz batek laburbiltzen du Antioquiako Medellin hiriko azken hogei urteetako historia: metamorfosia. 1970-2000ko hamarkada ilunen ondoren, Kolonbiako bigarren hiririk handiena hiri eraldatua, baketsua, dinamikoa eta erakargarria da. Eta auzo bat da beste batzuen gainetik berpizkunde horren ikurra: "Comuna 13" ospetsua.

Komunak bertako biztanleek sortu zituzten, gehienak gerrilla edo paramilitarren gatazka guneetan zeuden landa-eremuetatik desplazatu ondoren. Narko-indarkeriak suntsitutako auzoak izatetik hiri berritzaileen adibide nabarmena izatera igaro dira urte gutxian, komunitatearen ahaleginari esker. Joaquin SARMIENTO

GLOBO AEROSTATIKOAK ARMENIAKO ZERU URDINEAN

Globo aerostatikoen zaleak airean ibili ziren Garniko kokalekutik gertu, Kotayk eskualdean, Armenian, "Deskubritu Armenia zerutik" nazioarteko globo jaialdian, atzean Ararat mendia zutela. Armenia, Brasil, Bulgaria, Alemania, Kazakhstan, Polonia eta Errusiatik etorritako hogei globok koloreztatu zuten zerua.

Jaialdiak bi zati izan zituen: erakusketa eta kirola. Erakustaldian, hegaldi libreak egin ziren Garni eta Erevango aire-espazioan. Txanda atletikoan, globo talde bakoitzak proba ezberdinak pasatu behar izan zituen. Karen MINASYAN

AMERIKAR AMETSAREN AMAIERA

Mexiko eta AEBen arteko mugan, Patagoniako mendietan, Arizona estatuan kokatutako ibilgailuentzako hesia dago. 1990eko hamarkadatik, 4.000 migratzaile inguru hil dira mendietatik gertu dagoen Sonora basamortua zeharkatu nahian, eta kopurua egunetik egunera handitzen ari dela salatu dute erakundeek.

Mugako harresiak ere basa-bizitza kaltetu du: bi herrialdeetako ekologistek hainbat espezieren habitat naturala berreskuratzeko ahaleginak egin dituzte. Besteak beste, katu, hartz eta oreinek muga polemiko honen eragina nabaritu dute, beren lurraldeak zatitu direlako. Guillermo ARIAS

DUELA 3.500 URTE OPIOA ERABILTZEN ZUTEN

Kristo aurreko XIV. mendeko zeramikazko objektuetan opioaren kontsumoaren froga zaharrenak aurkitu zituzten irailean. Zehazki, droga haluzinogeno hau Kanaango hileta-erritualetan erabiltzen zela frogatu dute adituek. Antzinako lurralde bat zen Kanaan, gaur egungo Israel eta Palestinako lurraldeak hartzen zituena. Ahmad GHARABLI

ARTEZ ARGIZTATUTAKO ITSAS PASEALEKUA

"River of Light"-ek Liverpooleko itsas pasealekua argiztatu zuen 17 gauez, eta bertako, Erresuma Batuko eta nazioarteko hainbat artistaren artelanak erakutsi zituen bi kilometroko ibilbidean zehar. Argazkian, "Rainbow Accordion" obra, aldi berean Ingalaterrako hirian antolatu ziren aurtengo Munduko Gimnastika Txapelketari keinu eginez. Paul ELLIS

EGUZKIAREN ARKITEKTOA, COSSWILLER-EN

Eric Wasser, 65 urteko ebanista, etxe bioklimatiko baten eredua eraikitzen hasi zen 2005ean. Heliodomoa kristalezko eta egurrezko tronpo handi bat dirudien etxea da. Energia eguzkitik ateratzen du, klima larrialdiari erantzun arkitektoniko bat emateko. Udan freskoa da eta neguan epela, aire giroturik eta berogailurik gabe. Patrick HERTZOG

KLIMA-ALDAKETAREN AURKA, INKUBAGAILU BERTIKALA

Dundeeko (Eskozia) inkubagailu bertikal honetan landareak, LED diodo moreek edo berdeek bultzatuta, sei aldiz azkarrago hazten dira aire zabalean landatuta baleude baino. Kenny Hay ikertzailearen esanetan, «hasierako emaitzak harrigarriak dira». Litekeena da aurrerapen horrek karbono isuriak murrizten laguntzea. Andy BUCHANAN

UR-JAUZIAK GAINEZKA, EURITEEN ONDORIOZ

Turista talde bat Iguazuko ur-jauzietan, munduko ikusgarri eta handienetakotzat jotzen dena. Irudian, Argentinako mugan dagoen Brasilgo aldea, Foz do Iguacutik gertu, Paranako estatuan.

Urrian, ohikoa baino ia hamar aldiz ur emari handiagoa izan zuten, eta, ondorioz, pasabide nagusietako bat itxi behar izan zuten. Ur-jauzien alde brasildarrak, Argentinako Misiones probintziaren eta Paraguaiko Ciudad del Este departamenduaren arteko mugan, bi milioi bisitari jasotzen ditu urtero. Nelson ALMEIDA

ZABOR TEKNOLOGIKOAREN AURKA

Sei metroko garaiera duen eskultura, hondakin elektronikoz egina, Armada Gorriko Heroien Monumentuaren parean, Vienan. HA Schult artistaren "Wertgigant" obrak tresna elektrikoek kliman duten eragin negatiboa kritikatu nahi du. Kalkuluen arabera, Austriako etxeek 27.500 tona hondakin elektroniko inguru sortzen dituzte urtean. EVA MANHART

BANKSY, TAILANDIAN LEHEN ALDIZ

Banksyren "Kissing Coppers, 2006" obra, artista britainiarraren erakusketaren inaugurazioan, Bangkokeko Arte Garaikidearen Museoan. Globalizazioa, kontsumismoa, larrialdi klimatikoa edo gerraren izugarrikeriak bezalako gaiak lantzen ditu Banksyk bere sorkuntzetan. Jack TAYLOR

HEGOAFRIKAKO KOLORE BIZIA

Hegoafrikako Johannesburg hiriak kutsu indartsua hartzen du urrian: milaka jakaranda zuhaitzen petalo moredun itsaso bat loratzen da hiriaren gainean. Hego Amerikakoa izan arren, jakaranda zuhaitzek milaka turista erakartzen dituzte urtero. Michele SPATARI

Lurralde berrietara goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz